

Albisteak

Eusko Ikaskuntzako azken berriak

- Eurohiriari buruzko Jardunaldiak

Mugaz gaindiko elkarlana garatzeko ahalbideak eta muga juridikoak izenburupean, Baiona-Donostia Eurohiriari buruzko hirugarren jardunaldia izan da urtarrilaren 30ean Angelun Eusko Ikaskuntzaren eskutik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta BAB Distrituak Baiona-Donostia Eurohiriaren egitasmoa abian jarri zutenetik, ekimen politiko eta ahalegin tekniko ugari egin dira gai honen inguruan, eta 2001eko azarora arte luzatuko diren jardunaldi hauen bitartez, ekarpen berri bat egin nahi izan du Eusko Ikaskuntzak. Horrela, Eurohiriaren ikuspuntu anitz aztertu dira bertan: arkeologia, historia, ingeniariaritz, folklorea eta ekonomia.

- Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoa aztergai

Kontzertu Ekonomikoa arautzen duen Legearen indarraldia 2001eko abenduaren 31n amaituko dela-eta, epe laburrean hurrengo Kontzertua negoziatzeari ekin beharko zaionez, Lege hau eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa aztertzeke hainbat ekimen antolatu ditu Eusko Ikaskuntzak. Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñian hitzaldi eta jardunaldiak ari dira gauzatzen iazko urriaz geroztik, Kontzertuaren eta Hitzarmenaren inguruko alderdi desberdinak jorratuz.

Bestetik, Julian Elorza saria emango du Eusko Ikaskuntzak, Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoaren gaia bereziki ikuspuntu juridiko eta ekonomikotik eginiko ikerlan onena saritzeko.

- Familia Zuzenbidearen azterketa konparatua

Familia Zuzenbidea Euskal Herrian, Espainian eta Frantzian zertan den eta bakoitzak zein berezitasun dituen aztertu ziren Donostiako Miramar jauregian azaroan izandako jardunaldietan. Horrela, ezkontza erregimena, Pirineoetako alde bietako ezkontza eta erlijioa, egitatezko bikoteak, eta abar izan zituzten mintzagai bertan izandako adituek.

- Finantza Merkatuei buruzko elkarreraginezko ikastaroa

Mondragon Unibertsitateak eta Eusko Ikaskuntzak Finantza Merkatuetan elkarreraginezko ikastaroa (FIME) jarri dute abian. Enpresek eta inbertitzaileek finantza merkatuekin gero eta lotura handiagoa dutela ikusita, arlo honetan trebatzeko interesa daukan orori zuzentzen zaio 200 orduko iraupena duen ikastaro hau, martxotik ekainera bitartean.

Lehenik eta behin, finantza balorazioak egiteko teknikak irakatsiko dira, ondoren, finantza merkatu desberdinak aztertuko, eta azkenik alderdi juridikoa landuko da. Eusko Ikaskuntzak eskaintzen dituen gainerako elkarreraginezko Masterretan bezala, hemen ere ikasleek posta elektronikoz jasoko dute materiala, eta irakasleei galderak luzatu nahiz debateetan parte hartzeko aukera izango dute.

Álvaro Ispizua Mendieta eta Alfredo García Ramos dira zuzendariak.

Ezer gehiago jakin nahi izanez gero, Oihana Sanzberrok emango dizue horren berri (telefonoa: 945 23 15 52. Faxe: 945 14 87 52. Posta elektronikoa: eigazteiz@infonegocio.com).

Justizia Saitetik zer berri?

▪ Sinadura digitala euskal epaitegietan

Administrazioa “azkarra eta segurua” izatea du helburu Eusko Jaurlaritzaren esperientzia berri honek. Arabako eskumen penaleko epaitegiak, Entzutegi Probintziala eta abokatu zein prokuradoreen elkargoak dira sistema hau erabiltzen hasi diren lehenengoak, epaitegi eta profesionalek Internet bidez agiriak eta komunikazioak elkar bidaltzeko aukera izan dezaten.

Sinadura digitalak paperaren aldean azkartasuna dauka bere alde, eta segurtasuna nahiz konfidentzialtasuna bermatzen ditu. Proba epealdi hau amaitutakoan, Justizia Sailak ondorioak bilduko dituen txosten bat kaleratuko du, ondoren sinadura digitalaren erabilera Euskal Herriko Justizia Administrazio osora zabaltzeko asmoarekin.

▪ Hiritarrek Justizierekiko dauzkaten eskubide eta betebeharrei buruzko liburuxka

Hiritarrek Justizia Administrazioarekiko dauzkaten eskubide eta betebeharrak zeintzuk diren zehazten duen liburuxka bat kaleratu du Eusko Jaurlaritzak. Argitalpen honen helburua, gizarteak Justizia Administrazioa hobeto ezagutu eta bere inguruan daukan iritzia hobetzea da.

Guztira sei atal dauzkan liburuxkan, alde batetik hiritar orok Justizia Administrazioaren aurrean dauzkan eskubideen berri ematen da (errugabetasun presuntzioa, babes judizial eraginkorra, atxilotuen eskubideak, epaile eta magistratuei erantzukizuna eskatzeko eskubidea, etab.), eta, bestetik, betebeharrak zeintzuk diren adierazten da (hala nola, Epaimahaietan parte hartzeko, prozedura judizialean salatzailer nahiz lekuko gisa parte hartzeko, etab).

Carlos Suárez, Bizkaiko Abokatu Elkargoko letradua izan da testuaren egilea, eta 5.000 ale argitaratu ditu Justizia Sailak. Eskuratu nahi duenak jakin beza EAEko edozein Epaitegi edo Auzitegitan aurkituko duela alea, dohain.

▪ Ikasleek Justiziaren funtzionamendua ezagutzeko ekimena

Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleek, hala DBHko bigarren ziklokoek nola Zuzenbide ikasketak egiten dihardutenek, Justiziaren funtzionamendua gertutik ezagutzeko aukera izango dute, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Hezkuntza Sailak Justizia Auzitegi Nagusiarekin batera abian jarritako ekimen bati esker. Orotara, 55 eskolatako 1.300 ikasle izango dira Justiziaren mundura hurbilduko direnak.

Euskobarometroaren inkesta baten emaitzek aditzera ematen zutenez, bi hiritarretatik batek Justizia Administrazioaren funtzionamendua ezagutzeko interesa dauka, eta hain zuzen ere emaitza horren harian prestatu da ekimen hau. Honen helburuak, gazteak hizkera juridikoa ezagutzen joatea, Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak Justiziar buruz zer dioten jakitea, Justizia Auzitegiak nolakoak diren ikustea, eta epaile, fiskal eta abokatuekin harremanetan jartzea dira.

▪ Zuzenbideko testuak euskaratzeko hitzarmena

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak eta Deustuko Unibertsitateak Zuzenbideko testuak euskaratzeko hitzarmena sinatu dute. Ondorioz, Unibertsitate honetako Euskal Ikasketen Institutuak hainbat testu itzultzeari ekingo dio; besteak beste Prozedura Zibileko Legea, Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Oinarrizko Eskubideen Babesaren Legea.

Era berean, Bizkaiko foru erakundeek XVI. mendetik XIX.era bitartean zuzenbide zibil propioa aplikatuz emandako ebazpenak biltzeko xedea duen beste itun bat ere sinatu dute aipatutako bi erakundeek.

■ Foru Zuzenbidea Internet bidez ikasteko aukera

Euskal Autonomia Erkidegoko epaile eta magistratuak Foru Zuzenbideari buruzko eskolak Internet bidez jasotzeko aukera izango dituzte, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak, Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrek eta Deustuko Unibertsitateak sinatutako hitzarmenaren harian. Ikastaro hau amaitutakoan, ikasleek Foru Zuzenbideari buruzko ezagutzak badituztela baieztatuko duen akreditazio ofizial bat eskuratuko dute, beste autonomia erkidegoetara lekualdatzeko lehiaketetan meritu gisa baloratuko zaiena, Autonomia Estatutuko 35. artikulua esanei egokituz.

Hizkuntzaren gaineko auziak

■ Nafarroako Gobernuak Euskararen Foru Dekretu berria onartu du

Euskararen inguruko Foru Dekretu berria onartu zuen Nafarroako Gobernuak 2001eko urtarrilean. Ondorioz, eremu mistoan gazteleraz bideratuko dira eremu misto nahiz euskalduneko beste Administrazioekiko harremanak, eta Gobernuaren irudia ere gaztelerazkoa izango da.

Bestetik, Nafarroako Administrazioan sartzeko orduan, "bidezko denean" bakarrik hartuko da kontuan euskara. Aurreko dekretuarekin 4,50 puntu ematen ziren eremu euskalduneko lanpostuetarako, eta 2,25 eremu mistoetarako lekualdatze lehiaketetan; orain, berriz, 2,20 eta 2,10. Unitateetako zuzendaritzak betetzeko deialdietan, eta gora egiteko nahiz lekualdatze lehiaketetan, 5,50 puntu emango dira eremu euskaldunean euskara jakiteagatik, eta mistoan berriz 5,25, lehen 11 eta 5,5 ematen zirela.

Gai honek interes berezia duenez gero, sakonago aztertuko dugu **Eleriaren** hurrengo alean.

■ Toponimo galiziarra erabiltzearen aldeko epaia

Auzitegi Gorenak "A Coruña" izena erabiltzera behartu du Coruña alkatea 2000ko urrian emandako epai baten bidez. Francisco Vázquez 1983an alkatetzara heldu zenez geroztik, Udalaren agiri ofizial guztietan "La Coruña" ipintzen zuen, baina aurrerantzean galizierazko izena erabili beharko du, horrekin batera gaztelerazko izena ere erabili izango duen arren.

Luze joan da auzi hau. 1993an galizieraren defendatzailea den *Mesa pola Normalización Lingüística* elkarteak tarteratutako helegiteari Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaia berretsi du horrela Auzitegi Gorenak. Udalek Parlamentu autonomikoak hizkuntzari buruz emandako legeak bete behar dituztela esatera dator epaia, zeintzuek udalerrien izen ofizial bakarra galiziarra dela baitioten.

Galiziako Autonomia Estatutuak gazteleraren eta galizieraren ofizialtasuna aldarrikatzen duen arren, bigarren honi lehentasuna ematen dio, Konstituzioko hizkuntza ereduen mugak errespetatuz betiere.

■ Euskara, meritua lekualdaketen lehiaketetan

Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrek (CGPJ) txosten batean adierazi duenez, euskara meritu gisa hartuko da kontuan lekualdaketen lehiaketetan, baina ez ordea lanpostu zehatz bat eskuratu ahal izateko ezinbesteko baldintza edo ukanbehar tekniko gisa.

Eusko Jaurlaritzak Justizia modernizatzeko prestatutako Dekretuaren proiektuaren harian eman du txosten hau Justizia Administrazioaren Gobernu organoak. Bertan adierazten du Dekretuak finkatzen

dituen hizkuntza eskakizun eta deialdiek derrigorrean Botere Judizialaren Lege Organikoko 471 artikuluko mugak errespetatu behar dituela.

- Rovira i Virgili Unibertsitatean katalana erabiltzeko erregelamenduko artikulua nagusiak, deuseztatuta

Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiak deuseztatu egin ditu Rovira i Virgili Unibertsitatean (Tarragona) katalana erabiltzeko erregelamenduko artikulua nagusiak, eta, halaber, esekita utzi ditu Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko hizkuntza erregelamenduko hainbat alderdi.

Rovira i Virgili Unibertsitateko erregelamenduari dagokionez, errotulazioetan eta barne jardura administratiboetan katalana erabiltzearen inguruko artikulua dira deuseztatu direnak (4.1 eta 4.2 artikulua). Deuseztatu egin da, halaber, ikasleei eta, oro har, jendeari zuzendutako agiriak katalanez joango direla dioen artikulua. Auzitegiaren esanetan, erregelamendua “argi eta garbi kanpoan uzten du gaztelera”; izan ere, eta “demandanteek” ziotenaren arabera, “katalana erabiltzera behartzen dute, gaztelerrari jarduteko lekuri utzi gabe”.

Pompeu Fabra Unibertsitateko erregelamenduari dagokionez, berriz, hainbat artikulua eseki ditu Kataluniako Justiziako Justizia Auzitegiak; hala nola, zera diotenak: kargu akademikoak dauzkaten irakasleek katalana erabili behar dutela; aipaturiko Unibertsitateko errektoretzak onartutako estatutu, arau, akordio eta ebazpenak katalanez argitaratu direla; eta Unibertsitateko errotuluak katalanez idatziko direla. Epaiean esaten denez, artikulua hauek “argi eta garbi baztertzeko dute gaztelera erabiltzea, eta Hizkuntza Politikari buruzko 1/1998 Legea urratzen dute (...), maila instituzionalean hizkuntza ofizialkideetako bat erabiltzera behartzen dutelako, eta bestea erabiltzea eragozten”.

Beste

- Karrera judizialean dauden oztopoak salatu dituzte abokatuek


Abokatuek karrera judizialean laugarren bidea deiturikoaren bidez sartzeko dauzkaten oztopoak salatu ditu Abokatutzaren Euskal Kontseiluak. Oposaketak gainditu beharrik izan gabe, lanbidean hamar urtetik gora daramatzaten abokatu eta jurista ospetsuak epaile izateko aurreikusi zen bide hau.

Abokatutzaren Euskal Kontseiluak kaleratutako txostenak dioenaren arabera, merituen lehiaketara aurkeztu ziren berrogeita hamar euskal abokatuetatik bik bakarrik gainditu zuten hautaketa fasea, legea modu murrizkor batean interpretatzen dutela argudiatuz. Merituak aurkezteko orduan, abokatuek edo auzi kopuru zehatz batean parte hartu izana edota kolegiatuta daramaten urte kopuruaren artean aukeratu behar dute, baina ez gainerako juristek (unibertsitateko irakasleek, idazkari judizialek, etab.).

Bibliografia


Monografiak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. *Herritarra eta justizia administrazioa. Eskubide eta betebeharrak*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2001; 44 or.



Modu labur baina argigarrian, hiritarrek Justizia Administrazioarekiko dituzten eskubide eta betebeharren berri ematen digu liburuxka honek. Horrela, babes judizial eraginkorra, zigor arloa, abokatu eta prokuradoreen erantzukizuna, eta abar zertan dautzan azaltzen da txostenean.

HAEE. *Udal Gobernuaren Gidaliburua*, Gasteiz: HAEE, 2000.



Edizio txukun batean, Udal Gobernuen inguruko fitxez osaturiko karpeta bat kaleratu du HAEEK, euskaraz eta gazteleraz. Koadro, eskema eta argibidez jositako liburua, honako ataletan dago sailkatuta: arauen esparrua, antolamendu eta eskumenak, erregimen juridikoa, politika publikoak, baliabideak, lurralde-ekintza, ekonomiaren garapena eta herrigintza.


SAN MARTIN, Juan. *Giza eskubideen inguruan*, Donostia: Elkarlanean, 2000; 158 or.



Liburu honetan bere kezka sakonenetako bi bildu ditu Juan San Martinek: giza eskubideen garrantzia eta euskararen egoera. Euskaldunok munduari giza eskubideen arloan egin diogun ekarpena aztertzen du, baina historiako gaitetara mugatu gabe, egungo gorabehera eta polemikei ere helduz.

Itzulpenak

PORTALIS, Jean Etienne Marie. *Frantziako Kode Zibilaren lehen proiektua: Atariko hitzaldia*, Donostia: Jakin, 2000; 96 or. (Sarrera eta itzulpena: Andres Urrutia)



Portaris legelaria, Frantziako 1804ko Kode Zibilaren egileetariko bat izan zen. Hain zuzen ere lege testu horren aurkezpenerako prestatu zuen Atariko Hitzaldi ezaguna, bertan Frantziako Iraultzak aldarrikatutako ezaugarriak jaso zituela. Andres Urrutia dugu testuaren sarreraren egilea eta euskaratzailea.

Artikuluak

AGIRRE GARAI, Jon. "Hitz-sorkuntzako uste ustelak (IV)", In: *Administrazioa Euskaraz*, 30. zkia., Gasteiz: HAEE, 2000; 19. or.

Hizkera teknikoetan maiz sortzen da erabili beharreko hizkuntza mailak nolakoa behar duen galdera: jasoa? Estandarra? Euskaltzaindiak bere Hiztegi Batuan hitzen hizkuntza mailari buruz egiten dituen oharra iruzkindu ditu HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko buru den Jon Agirrek.




HAEE. "Gaur egun nahikoa al da Nafarroako Euskararen Legea?", In: *Administrazioa Euskaraz*, 29. zkia., Gasteiz: HAEE, 2000; 20-21 orr.

Nafarroan euskararen erabilera Administrazioan arautzen duen foru dekretuaren inguruan ematen ari diren eztabaiden



harian, 1986ko Nafarroako Euskararen Legea eskuetan hartu, eta nahikoa ote den galderari erantzun diote lau adituk: Carlos Cristobal, PSNko Eskualde Politikako idazkariak, Sagrario Aleman, Iruñako Arturo Campion euskaltegiko arduradunak; Aingeru Epaltza, Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakaria eta idazleak; eta Juan Cruz Alli, CDNko presidentek.

TAPIA ALBERDI, Fernando. "Zuzenbidearen alorreko euskara", In: *Oñati-IISL Newsletter*, 11. zkia., Oñati: 2000, 6-7 orr.



Euskarak Zuzenbidearen arloan izan duen eta egun daukan presentziari buruzko azterketa labur bat egiten du egileak Oñatiko Lege Soziologiako Erakundeak argitaratu ohi duen buletinean, eta, halaber, gomendio batzuk ere luzatzen ditu terminologia juridikoa finkatu eta hedatzeko.